

URRUNDIK IKUSTEN DUT

Iñaki Eizmendi “Basarri”

-1940ko urtarrilaren 20an Parisen ateratzen zen Euzko Deya. La Voix des Basques aldizkarian argitaratutako artikulua. 194. zenbakia-

Gabak luze, egunak labur.
Burdeos zabalaren bazter egal bat autatu degu.
Gelatxo soil bakarti bat egun batzuk aurrez eskatua genuen;
zintzoki gorde digute, portatu dira...
Zortzirak dira bete betean...
Jatordu maia apainki ornitua dugu zapi zuriz. Zortzi euskaldun, zortzi abertzale beraren biran zutiñik tinko.
Badirudi guziori irudi berdiña darogula burura.
An, urruti, Euzkadi'ko gallur batean, etxe-jaun zarra, basetxe ataritik pendiz batera laister maisterka batean presakatua doala ikusten dugu, ta eldu danarekiñ batera, bere jaiot-etxera pardel aundiarekin bidetxigorrak zear alaikiro ta arinki iyoaz urbiltzen zaion seme laztana ikusten duela, ta bat batetan aita zarrak erasotzen diola:



Ator, ator mutil etxera
Gaztañak ximelak jatera...

Ta geroxeago danboliñaren “tarraka” otsa entzuten genuen, etxe barneko besarkada sendoak aurrez aurre ikusten genitun...

Oroitzapen oiek geuregan genitun arte ondo giñan, abesten, kantatzen ari giñan arte Euzkadi'ñ geunden, baña kantua amaitu zalarik, Burdeos'ko baster illun batean geundela konturatu giñan.

Oroitzapenak iges eta malkoak urbildu zitzaizkigun...

Verdier kardenal aundiak, aurtengo gabonetarako zuzenduriko dei xamurrean dio: “Mundua ezta aingeruen abestiekin ta errege magoen eskeintzakiñ salbatuko, jaio berri dan Aurraren atsekabe ta suprimientuekin baizik”.

Fede argia itxaropen argia da beti, ta gu euskaldunok argi ori inguruan degula gabiltz. Argi ori bide, gure afari ezin da alaikiago, ezin da pozgarriago izan zan. Ipuiak, gertakariak, olerkiak, kantuak... batez ere euskera, euskera utsa, besteren erreñu gabe geure izkuntz sakona buru...

Egun eder aueri buruz, Claude Blanchard´ek zion “Paris-Soir”tik: “Noel est l´evocationde la patrie absente”.

Guretzat laugarren aldiz alaxe gertatu da behintzat.

Itxaropen izpi dirdaiak bultzata, zortzi euskaldunek Burdeos zabalaren egal batean ezin da obekiago ospatu genuen arren, lagunak agurtuta etxe bidea bakarka artu nuenean, geure lur ederretara begiak luzaturik, auxe kantatzen nuen:

Urrundik ikusten dut,
ikusten mendia;
beraren gibelean
da nire erria...

Tellatu zoko batetik ontz zar batek erantzuten ziran.

Orra aurtengo gure gabon jaiak.